Itzuli / Volver

# TXOSTENA / MEMORIA

## 08: BIDE MUGIKORTASUNEKO ETA BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUA

### 01 Programa. Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Zerbitzu Orokorrak

Programa honen jarduera ildo nagusia da Departamentuak garatzen dituen programak eta jarduerak bultzatzea, koordinatzea eta kontrolatzea, foru diputatuak eta zuzendaritza nagusiek eta zerbitzuek behar dituzten laguntza eta aholkularitza ematea, eta Departamentuaren sistema administratiboak eta informaziokoak hobetzea eragiten duten jarduerak sustatzea.

Azpimarratu behar da Zerbitzu Orokorrei dagokiela Departamentuko kontratazio espedienteak tramitatzea; direla obra, nahiz hornidura eta zerbitzuak kontratatzekoak.Baita ere Zerbitzu Orokorrei dagokie kontratazio espediente horien jarraipena egitea kontratua amaitu arte.

### 10 Programa. Garraioaren Antolamendu eta Sustapena

Herritarren eta erakunde publikoen arduretako bat bidaiarien garraioa kudeatzea da, hau da, herritarren mugikortasuna eta ikasketa, lan, aisialdi eta zerbitzu zentroetako irisgarritasuna bermatzea.

Irisgarritasuna bermatzeko konpromisoak bateragarria izan behar du garraio sistemaren iraunkortasunarekin eta horrek ahalegin nabarmena eskatzen du garraio publikoa bultzatzeko eta merkatu-kuota gehitzeko.

Horrela, bada, programa hau ardatz nagusietako bat da Departamentuaren jardunean.

2013ko aurrekontu ekitaldian programa honen kontura landuko diren jarduera ildo eta ekintzen artean, nabarmendu behar da Gipuzkoako garraiobide publiko guztien tarifa bateratzeko proiektua abian jartzea.

## 08: DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD E INFRAESTRUCTURAS VIARIAS

### Programa 01. Servicios Generales de Movilidad e Infraestructuras Viarias

La principal línea de actuación de este programa consiste en impulsar, coordinar y controlar los programas y actividades desarrolladas por el Departamento, prestar el apoyo y asesoramiento que requieran tanto la Diputada Foral como las Direcciones Generales y los Servicios, así como impulsar cuantas actividades conlleven una mejora de los sistemas administrativos y de información del Departamento.

Cabe destacar que corresponde a Servicios Generales la tramitación de los expedientes de contratación relativos a obras, suministros y servicios que se hagan en el Departamento. También se realizará el seguimiento de dichos expedientes hasta la finalización del contrato.

### Programa 10. Ordenación y Promoción del Transporte

La gestión del transporte de viajeros, esto es, asegurar la movilidad de los ciudadanos y la accesibilidad a los distintos centros de estudio, trabajo, ocio y servicios en general, constituye una preocupación de la ciudadanía y de las instituciones públicas.

El compromiso de garantizar la accesibilidad ha de hacerse compatible con la sostenibilidad del sistema de transporte lo que requiere una apuesta decidida por el transporte público y por el aumento de su cuota de mercado.

Por todo ello, este programa constituye uno de los ejes básicos de actuación del Departamento.

Entre las líneas de actuación y actividades que se prevé desarrollar en el ejercicio presupuestario de 2013 con cargo a este programa presupuestario cabe destacar entre todas, la puesta en marcha del proyecto de integración tarifaria para todas los modos de transporte público de Gipuzkoa.

Horrela, garraiobide guztietan deskontu politika bera ezarriko da, eta kolektibo bereziak definituko dira: haurrak, gazteak, adinekoak, ezinduak eta soziala. Sistemaren euskarri izango da oraingo "txartel bakarra".

De esta manera en todos los modos de transporte se va a implantar una misma política de descuentos, de definición de colectivos especiales tales como haurrak, gazteak, adinekoak, ezinduak y soziala. El sistema se sustentará sobre las actuales tarjetas de "Billete Único".

Programa horren barruan beste laguntza mota bat ere sartzen da, hau da, ohiko ibilgailuaren ordez indarrean dagoen legeriak ezarritako irisgarritasun baldintzetara egokitutakoa erosten duten taxilariei emango zaiena.

Se incluye también en este programa la concesión de ayudas a los profesionales del taxi que sustituyan sus vehículos convencionales por vehículos adaptados a las condiciones de accesibilidad establecidas en la legislación vigente en la materia.

Garraioaren gaian Foru Aldundiak hartuta dituen, eta eman zaion erantzukizunaren arabera departamentu honek burura eraman behar dituen eginkizunak eta eskumenak hobeto eta eraginkortasun handiagoz betetzeko, programa honen bidez jarraituko da garraioaren alorrean derrigorrezkoak diren ikuskapen lanak egiten.

Asimismo, en orden a un mejor y más eficaz cumplimiento de las obligaciones y competencias que le corresponden a la Diputación en el campo del transporte y que, para su ejecución, han sido encomendadas a este Departamento, este Programa continuará desarrollando sus labores obligatorias de inspección derivadas del transporte.

Bestalde, bidaiarien errepide garraioko zerbitzuari dagokionez, azpiegitura bereziak lurraldeari emateko, programaren bidez honako eginkizun hau egin nahi da: Foru Aldundiaren titularitateko bidaiarien garraio publikoaren emakida sarean bazterbideak eta geltokiak eraberritzeko eta handitzeko lanak egitea. pisaketako baskula berriak jartzea, eta egun daudenak berritzea.

Por otra parte, el Programa, con el objetivo de dotar al territorio de determinadas infraestructuras específicas al servicio del transporte de viajeros, acometerá la reforma y ampliación de los apartaderos y paradas en la red de concesiones de transporte público de viajeros de titularidad foral, instalación de nuevas básculas de pesaje y renovación de las ya existentes

Azkenik, mugikortasunari buruzko azterlan bat egingo da, ezagutu nahi baita generoaren gaineko zer eragin sortzen duten lantoki, aisialdiko toki, eskola, osasun zentro eta merkatuen arteko distantziek eta garraio publikoaren itxoiteko denborek. Azterlanaren emaitzen arabera, dagozkion neurriak abian jarri ahal izango dira.

Finalmente, se prevé la realización de un estudio de movilidad para conocer el impacto de género que provocan las distancias entre lugar de trabajo, espacios de ocio, escuela, centros de salud y mercados, y los tiempos de espera del transporte público. A partir de los resultados del estudio se podrán poner en marcha las medidas correspondientes.

**11 Programa. Mugikortasuna**

**Programa 11. Movilidad**

II. kapituluaren zuzkidura egokitu egiten da, alde batetik, Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sarean mantentze jarduerak egiteko eta bizikleta bideak aztertzeko betebeharrak bermatuz (energia elektrikoa, zaintza, bide segurtasunaren alderdiak eta trafikoaren behaketa eta kudeaketa) eta bestetik, Bizikleta Bideei buruzko Foru Arauan ezarritako bizikleta politika (Bizikletaren estrategia,

La dotación del Capítulo II se ajusta, garantizando las obligaciones de mantenimiento y supervisión de la Red Básica Foral de Vías Ciclistas (energía eléctrica, vigilancia, aspectos de seguridad vial y observación y gestión de tráficos…) así como en política de bicicleta establecidas en la Norma Foral de Vías Ciclistas (Estrategia de la Bicicleta, Consejo de la Bicicleta, estudios y actuaciones de promoción,

Bizikletaren Kontseilua, azterlanak eta sustapen jarduerak, eta abar) eta sareari eta lotutako alderdiei buruzko informazio publiko zerbitzuak (web orria, aldizkaria, iragarkiak egunkarietan batez ere).

VI. kapituluari dagokionez, proiektuak idazteko eta bidegorriak egin eta artatzeko aurrekontua murrizteko asmoa dugu, betiere, nolabaiteko oreka mantentzeko ahalegina eginez Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sareko Lurralde Arloko Plana gauzatzeko hartutako konpromisoen, Bizikleta Bideen Foru Arauak dioenaren, eta bizikleta bideen arloan inbertsio esfortzua mantentzeko Batzar Nagusiek behin eta berriz egindako eskaeren artean, egungo gizarte eta ekonomia testuinguruan aurrekontuak dituen baliabideen barruan.

Horrela, honako bidegorrien 1. fasea osatzeko beharrezko kontu-sailen aurrekontua prestatu da: Lasarte-Oria, Urnieta eta Andoain (Andoain-Urnieta zatia) eta 2012an hasi den Elorregi-Oñati eta Elorregi-Epele (Epele-Elorregi-Zubillaga zatia). Era berean, Itsasondo-Ordizia, Zumaia-Arroaren 1. fasea eta Maltzaga-Azitain bidegorriari dagozkion zatiak hasteko asmoa dugu. Bestalde, murriztu egin dira desjabetzeetarako, proiektuak idazteko eta laguntza teknikoetarako kontu-sailak, aurreikusita dagoen eraikuntza erritmoari egokituta, baita bidegorriak artatzeko kontu-sailarena ere, ohiko artapen lanak errepideen artapen osoko kontratuetan sartu baitira.

Bestalde, berariazko kontu sail baten bidez bidegorrien udal sarea ere garatzea aurreikusten da, tokiko bizikleta eta oinezkoen bideak eraikitzeko udalerriei lagunduz.

Azkenik, VII. kapituluko kreditua azpimarratu behar da, Lazkaoko Udalarekin sinatutako hitzarmenerako, Lazkaoko herrigunearen eta industrialdeen arteko bidegorri zati bat finantzatzeko Beasain-Ataun ardatzaren barruan.

Bestalde, programa honetan generoak zein eragin duen ezagutzeko, bizikleta bideen sarearen erabilerari buruzko azterlan bat egingo da, generoaren ikuspuntutik. Azterlan

etc.), y en servicios de información pública sobre la red y aspectos relacionados (web, revista, anuncios en prensa, principalmente).

En lo relativo al Capítulo VI, se plantea una reducción del presupuesto destinado a redacción de proyectos, construcción y conservación de bidegorris, tratando de mantener un cierto equilibrio entre los compromisos de ejecución del Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Gipuzkoa, los contenidos de la Norma Foral de Vías Ciclistas y las reiteradas peticiones de las Juntas Generales de mantenimiento del esfuerzo inversor en materia de vías Ciclistas, con la disponibilidad presupuestaria en el contexto socio-económico actual.

En ese sentido, se han presupuestado las partidas necesarias para completar la primera fase del bidegorri Lasarte-Oria, Urnieta y Andoain (tramo Andoain-Urnieta) y la primera fase del bidegorri Elorregi-Oñati y Elorregi-Epele (tramo Epele-Elorregi-Zubillaga), cuyas obras se han iniciado en 2012. Se plantea así mismo iniciar la ejecución de los tramos Itsasondo-Ordizia, Zumaia-Arroa Fase I y Maltzaga-Azitain. Por otra parte, se han reducido las partidas previstas para expropiaciones y redacción de proyectos y asistencias técnicas, ajustando su cuantía al ritmo de construcción previsto, así como la partida de conservación de bidegorris, al haber asumido la conservación ordinaria de los mismos dentro de los contratos integrales de conservación de carreteras.

Por otra parte, se prevé impulsar el desarrollo de la Red municipal de bidegorris mediante una partida específica que ayude a los municipios en la construcción de vías ciclistas y peatonales de ámbito local.

Finalmente, señalar el crédito establecido en el Capítulo VII para el convenio firmado con el Ayuntamiento de Lazkao, relativo a la financiación de un tramo de bidegorri comprendido entre el casco urbano de Lazkao y las zonas industriales, dentro del eje Beasain-Ataun.

Por otra parte, en lo relativo a impacto de genéro se prevé la realización de un diagnóstico sobre el uso de la red de vías ciclistas desde una perspectiva de género, que incluya información

horrek informazio kualitatiboa eskainiko du gizonezkoen eta emakumezkoen erabilera motari eta asebetetzeari buruz, batez ere emakumeen segurtasunarekin zerikusia duten arloak azpimarratuta eta beharrak identifikatuta. Azterlanaren emaitzen arabera, dagozkion neurriak abian jarri ahal izango dira.

cualitativa sobre el tipo de uso y satisfacción de hombres y mujeres, haciendo especial hincapié en los aspectos relacionados con la seguridad de las mujeres y las necesidades identificadas. A partir de los resultados del estudio se pondrían en marcha las medidas correspondientes.

**20 Programa. Errepideak artatzea**

Programa honen helburu nagusia da Errepide Sarea eta Bidegorriak egoera onean zaintzea, eta helburu horri jarraituz lanak bide segurtasun arlora bideratzen dira, gertatzen diren istripu kopurua murrizteko.

Programa honetan 2013. urterako aurreikusitako lan garrantzitsuenak honako hauek dira:

- Fabrika obretako lanak, egonkortze lanak, hormak, ur erretenak, harri-lubetak, etab.
- Zabalguneak hobetzea eta tokian tokiko hobekuntzak egitea, bazterbideak eta karelak konpontzea, ezpondak tratatzea, etab.
- Bidezoruak sendotu eta hobetzea.
- Bide segurtasunerako obrak (gune arriskutsuak egokitzea, bihurguneak konpontzea, bidegurutzeak hobetzea).
- Seinale horizontal eta bertikalak, eta tangak jartzea.
- Artapen arrunteko obrak (errepideen artapen osoa, larrialdiei erantzutea, garbiketak, zuloak estaltzea, etab.).
- Instalazio elektrikoak hobetzea (argiak, aireztapena, seinalizazioa, etab.).
- Ingurumen eragina murrizteko neurriak (zarataren eragina).
- Garraio sistema adimendunak (GSA) jartzeko lanak (mezu aldakorreko panelak, telebista zirkuitu itxiak, etab.).

Era berean, azpimarratu behar da Lehentasunezko, Oinarrizko eta Eskualde sareetako errepide guztien ohiko artapen lanak,

**Programa 20. Conservación de Carreteras**

El principal objetivo de este programa es el de mantener la Red de Carreteras y vías ciclistas Peatonales en condiciones óptimas dirigiendo sus actuaciones en el campo de la seguridad vial con objeto de reducir la accidentabilidad en las mismas.

Las principales actuaciones previstas para el año 2013 en este programa son:

- Actuaciones en obras de fábrica y estabilizaciones, muros, tajeas y escolleras, etc.
- Mejoras de explanaciones y mejoras locales, arreglo de márgenes, pretiles, tratamiento taludes, etc.
- Refuerzos y mejoras de firmes.
- Obras seguridad vial (tratamiento de puntos negros, arreglo de curvas, mejora de intersecciones).
- Señalización horizontal, vertical y balizamiento.
- Obras de conservación ordinaria (conservación integral, atención de emergencias, limpiezas, bacheos, etc).
- Mejora de instalaciones eléctricas (Alumbrado, ventilación y señalización, etc.).
- Medidas reductoras de impacto ambiental (impacto de ruido).
- Actuaciones de implantación de Sistemas Inteligentes de Transporte (ITS) (Paneles de mensaje variable, Circuitos cerrados de televisión, etc.).

También cabe señalar que las labores de conservación ordinaria de todas las carreteras de las Redes de Interés Preferente, Básica y

artapen osoko kontratuen bidez egiten direla.

Comarcal se realizan mediante contratos de conservación integral.

Departamentuko lan-taldeetako langileak garraiatzeko furgoiak erosiko dira.

Se prevé la adquisición de furgones de transporte de personal para los equipos de Medios Propios del Departamento.

**21 Programa. Errepideen eraikuntza eta hobekuntza**

Foru Aldundiaren Errepide Sarea osatu eta hobetzeko obrak sartzen dira programa honetan.

Programa honen kontura egingo ditugu Euskadiko Errepideen 2. Plan Orokorrak aurreikusitako obrak, 2010eko azaroaren 23ko 23/2010 Dekretuak, 2005-2016 urteetarako Euskal Herriko Errepideen 2. Egitasmo Orokorraren berrikuspena onartzekoak, aurreikusitakoarekin bat eginez, eta Gipuzkoako Errepideen Lurralde Egitasmoaren Aurrerapenean aurreikusitakoak.

Planaren xedeko sareko obren barruan azpimarratzekoak dira GI-632 errepidearen saihesbidearen Antzuolako lotune erditik Bergararainoko zatia (AP-1 autobideko lotura) egiteko lanak. Batzar Nagusiek onartu dituzte obra hori egiteko 2013, 2014 eta 2015eko konpromiso kredituak (2012ko urriaren 8ko 8/2012 Foru Araua). Horren barruan sartzen dira baita ere obra zuzentzeko laguntza teknikoko kontraturako beharrezko kredituak.

Bestalde, GI-131 errepidearen Hernaniko saihesbidea bikoizteko lanak amaitzeko eta obra zuzentzeko laguntza teknikoko kontratuari aurre egiteko kontu-sailak ere hemen sartzen dira.

Gainera, Adunan GI-3021 errepidea zabaltzeko eta Lazkaon GI-2120, GI-3491 eta GI-3560 errepideen arteko bidegurutzea hobetzeko beharrezko kontu-sailak sartuta daude, bi udalekin sinatutako hitzarmenak kontuan hartuta.

Obrak egiteko desjabetutako lurren balio justua ordaintzeko zenbatekoak ere programa honetan sartuak daude.

**Programa 21. Construcción y Mejora de Carreteras**

Con cargo a este programa se realizan las obras de construcción y mejora de la Red de Carreteras de la Diputación Foral.

También se atiende a la ejecución de las previsiones del 2º Plan General de Carreteras del País Vasco, de acuerdo con lo previsto en el Decreto 307/2010, de 23 de noviembre, por el que se aprueba la revisión del Segundo Plan General de Carreteras del País Vasco para el periodo 2005-2016, y a las previsiones del Avance del Plan Territorial de Carreteras de Gipuzkoa.

Dentro de la Red objeto del Plan, destaca la iniciación de las obras de construcción de la variante de la carretera GI-632 en el tramo Semienlace de Antzuola- Conexión con la AP-1 en Bergara; los créditos de compromiso necesarios para la ejecución de dicha obra (anualidades 2013, 1014 y 2015) han sido aprobados por las Juntas Generales (Norma Foral 8/2012 de 8 de octubre). Se incluyen así mismo los créditos necesarios para el contrato de asistencia técnica a la dirección de esa obra.

Se incluyen, por otra parte, las partidas necesarias para hacer frente a la finalización de las obras de la duplicación de la variante de Hernani de la GI-131 y del contrato de asistencia a la dirección de esa obra.

Se incluyen también las partidas necesarias para hacer frente a la ampliación de la carretera GI-3021 en Aduna, y de la mejora de las intersecciones de las carreteras GI-2120, GI-3491 y GI-3560, en Lazkao, conforme a los convenios firmados con ambos ayuntamientos.

El programa también contempla los justiprecios para abono de expropiaciones de las obras.

## 22 Programa. Plangintza eta ustiapena

Programa honetan sartzen dira Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusiko Kontratazioko Zerbitzuko eta Plangintza eta Ustiaketa Unitateko jardueraren ondorioz sortutako gastuak.

Plangintza Zerbitzuari dagokionez, programarekin bete nahi diren helburuen artean daude, Errepideen Lurralde Arloko Plana egitea eta, ondoren, tramitatzea onartu ahal izateko. Era berean, lurralde eta herrietako planen bide azpiegiturei buruzko txostenak idazten dira. Euskal Herriko Errepideen Plan Orokorraren jarraipena ere egingo dugu.

Errepideak ustiatzeari dagokionez, helburua da Aldundiaren sareko errepideak babesteko jarduketak egitea, bideen herri jabariaren erabilera kontrolatuz.

Programa honen diru-sarrera iturri gisa aurreikusi dira, erabiltzaileek errepideari eragindako kalteengatik irekitzen diren erantzukizun espedienteetatik eratorritakoak, eta errepide gaietan egindako urraketengatik irekitzen diren zigor espedienteetatik eratorritakoak.

## Programa 22. Planificación y explotación

En este programa se incluyen los gastos derivados de la actividad de la Unidad de Planificación y Explotación integrada en la Dirección General de Infraestructuras viarias.

En lo que respecta al Servicio de Planificación, se establece como objetivo a cumplir la redacción de informes en los aspectos relativos a infraestructuras viarias de los Planes Territoriales y Urbanos y de otros estudios ligados a la planificación de la red foral de carreteras. También se intervendrá en el seguimiento del Plan General de Carreteras del País Vasco.

En lo que respecta a la Explotación, se fija como objetivo las actuaciones encaminadas a la defensa de las infraestructuras  de la Red Foral de carreteras y vías ciclistas, controlando el uso del dominio público.

Como fuentes de ingreso de este programa se han presupuestado los correspondientes a los expedientes por los que se exige responsabilidad económica a los usuarios que causen daños a las citadas redes y los derivados de expedientes sancionadores por las infracciones tipificadas en la correspondiente Norma Foral.

08 Departamentua MUGIKORTASUNEKO ETA BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUA

Departamento 08 DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD E INFRAESTRUCTURAS VIARIAS

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak<br>Programas | LANGILEAREN GASTUAK<br>1<br>GASTOS DE PERSONAL | ONDASUN ETA SERB.OHIKO<br>2<br>G. CORR. EN BIEN.Y SERV | FINANTZA GASTUAK/<br>3<br>GASTOS FINANCIEROS | OHIKO DIRU LAG. ETA TR<br>4<br>TRANSFEREN. Y SUBV.CORR | INBERTSIO ERREALAK/<br>6<br>INVERSIONES REALES | KAP. DIRU LAG.ETA TRA<br>7<br>TRANS Y SUB DE CAPITAL | FINANTZA AKTIBOAK./<br>8<br>ACTIVOS FINANCIEROS | FINANTZA PASIBOAK./<br>9<br>PASIVOS FINANCIEROS | Aurrekontu Guztira<br>Total Presupuesto |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01.Mugikortasuna eta Bide Azpiegituretako Zerbitzu Orokorrak<br>Servicios Generales de Movilidad e Infraestructuras Viarias | 1.143,35 | 768,68 | 0,00 | 150,00 | 390,05 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 2.452,07 |
| 10.Garraioaren antolamendu eta sustapena/<br>Ordenación y Promoción del Transporte | 1.311,51 | 878,00 | 0,00 | 23.162,47 | 230,00 | 2.942,91 | 0,00 | 0,00 | 28.524,89 |
| 11.Mugikortasuna /<br>Movilidad | 0,00 | 80,00 | 0,00 | 0,00 | 4.104,65 | 1.128,19 | 0,00 | 0,00 | 5.312,84 |
| 20.Errepideak Artatzea/<br>Conservación de las Carreteras | 3.614,34 | 4.325,45 | 0,00 | 0,00 | 32.912,70 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 40.852,49 |
| 21.Errepideen Eraikuntza eta Hobekuntza/<br>Construcción y Mejora de Carreteras | 1.533,70 | 37,20 | 0,00 | 0,00 | 29.848,77 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 31.419,66 |
| 22.Plangintza eta Ustiapena /<br>Planificación y Explotación | 791,01 | 62,13 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 853,13 |
| **Departamentua Guztira**<br>**Total Departamento** | **8.393,91** | **6.151,44** | **0,00** | **23.312,47** | **67.486,16** | **4.071,10** | **0,00** | **0,00** | **109.415,09** |

